EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO

BERDINTASUN, JUSTIZIA
ETA GIZARTE POLITIKETAKO SAILA

DEPARTAMENTO DE IGUALDAD,
JUSTICIA Y POLÍTICAS SOCIALES



# FAMILIA ETA LANA BATERAGARRI EGITEKO LAGUNTZAK



- 164/2019 Dekretua, urriaren 22koa, familia eta lana bateragarri egiteko laguntzei buruzkoa.

- 102/2022 Dekretua, irailaren 7koa, 14 urtetik beherako seme-alaba adingabeak zaintzeko langileak kontratatzeko laguntzena.

# SEME-ALABAK ZAINTZEA

ESZEDENTZIA

SEMEAK EDO ALABAK 3 URTE BETE ARTE



- Onuradunak:
  - Besteren konturako langileak.
  - Bazkide kooperatibistak.

- Gutxieneko aldia: 59 egun segidan. Ikus salbuespenak.

- Gehieneko aldia: 900 egun natural seme edo alaba bakoitzeko, bikotearentzat (548 egun eskatzailea emakumea bada, eta 900 egun eskatzailea gizona bada). 2.190 egun familia-bizitza osorako.

- Dirulaguntzaren zenbatekoa: hilean 245 eta 292 €* bitartean, familia-errenta estandarizatuaren arabera**

* % 30 gehiago familia ugarientzat, guraso bakarrekoentzat, edo genero-indarkeriaren biktima den kideren bat, mendekotasun larria edo handia duen kideren bat edo % 50eko desgaitasuna edo handiagoa duen kideren bat dutenentzat (igoera metagarriak).

** Familia-errenta estandarizatuaren kalkulua

# SEME-ALABAK ZAINTZEA

LANALDIA MURRIZTEA (GUTXIENEZ % 33)

SEMEAK EDO ALABAK 12* URTE BETE ARTE



- Onuradunak:
  - Besteren konturako langileak.
  - Bazkide kooperatibistak.
- Gutxieneko aldia: 59 egun segidan. Ikus salbuespenak
- Gehieneko aldia: 2.700 egun natural seme edo alaba bakoitzeko, bikotearentzat (1.350 egun eskatzailea emakumea bada, eta 2.700 egun eskatzailea gizona bada) . 7.800 egun familia-bizitza osorako.
- Dirulaguntzaren zenbatekoa: hilean 151 eta 233 €** bitartean, familia-errenta estandarizatuaren*** eta murrizketaren ehunekoaren arabera.

* 18 urte bete arte luzatuko da, umeak % 33ko desgaitasuna edo handiagoa badu
* % 30 gehiago familia ugarientzat, guraso bakarrekoentzat, edo genero-indarkeriaren biktima den kideren bat, mendekotasun larria edo handia duen kideren bat edo % 50eko desgaitasuna edo handiagoa duen kideren bat dutenentzat (igoera metagarriak).

***Familia-errenta estandarizatuaren kalkulua

# MENDEKOTASUNA DUTEN SENIDEAK ZAINTZEA

## ESZEDENTZIA



- Onuradunak:
  - Besteren konturako langileak.
  - Bazkide kooperatibistak.
- Zaindu beharreko senideak aitortua izan behar du mendekotasun larria (II. maila) edo mendekotasun handia (III. maila).
- Bigarren mailara arteko odol-ahaidetasuna edo lehen mailako ezkontza-ahaidetasuna egon beharko da bi pertsona horien artean, edo, bestela, ezkontideak edo izatezko bikoteak izan beharko dute.
- Gutxieneko aldia: 59 egun segidan. Ikus salbuespenak
- Gehieneko aldia: 365 egun natural eskatzailea emakumea bada, eta 730 egun eskatzailea gizona bada.
- Dirulaguntzaren zenbatekoa: hilean 245 eta 292 €* bitartean, familia-errenta estandarizatuaren arabera**

* % 30 gehiago familia ugarientzat, guraso bakarrekoentzat, edo genero-indarkeriaren biktima den kideren bat, mendekotasun larria edo handia duten bi kide edo % 50eko desgaitasuna edo handiagoa duten bi kide dituztenentzat (igoera metagarriak).

** Familia-errenta estandarizatuaren kalkulua

# MENDEKOTASUNA DUTEN SENIDEAK ZAINTZEA

**LANALDIA MURRIZTEA (GUTXIENEZ % 33)**

- Onuradunak:
  - Besteren konturako langileak
  - Bazkide kooperatibistak

- Zaindu beharreko senideak aitortua izan behar du mendekotasuna (edozein gradutakoa).

- Bigarren mailara arteko odol-ahaidetasuna edo lehen mailako ezkontza-ahaidetasuna egon beharko da bi pertsona horien artean, edo, bestela, ezkontideak edo izatezko bikoteak izan beharko dute.

- Gutxieneko aldia: 59 egun segidan. Ikus salbuespenak
- Gehieneko aldia: Ez dago mugarik.

- Dirulaguntzaren zenbatekoa: hilean 151 eta 233 €* bitartean, familia-errenta estandarizatuaren eta murrizketaren ehunekoaren arabera.



* % 30 gehiago familia ugarientzat, guraso bakarrekoentzat, edo genero-indarkeriaren biktima den kideren bat, mendekotasun larria edo handia duten bi kide edo % 50eko desgaitasuna edo handiagoa duten bi kide dituztenentzat (igoera metagarriak).

** Familia-errenta estandarizatuaren kalkulua

# OSASUN-EGOERA OSO LARRIAN DAUDEN SENITARTEKOAK ZAINTZEA

ESZEDENTZIA




- Onuradunak:
  - Besteren konturako langileak.
  - Bazkide kooperatibistak.
- Zaindu beharreko pertsona semea, alaba, ezkontidea edo izatezko bikotea izango da.
- Baldintza da zaindu beharreko pertsonak laguntza behar izatea eguneroko bizitzako oinarrizko ekintzak egiteko, autonomia fisikoa, psikikoa edo intelektuala galdu duelako (txosten medikoa).
- Gutxieneko aldia: 59 egun segidan. Ikus salbuespenak
- Gehieneko aldia: 90 egun eskatzailea emakumea bada, eta 180 egun eskatzailea gizona bada.
- Dirulaguntzaren zenbatekoa: hilean 241 eta 288 €* bitartean, familia-errenta estandarizatuaren arabera**.

* % 30 gehiago familia ugarientzat, guraso bakarrekoentzat, edo genero-indarkeriaren biktima den kideren bat, mendekotasun larria edo handia duten bi kide edo % 50eko desgaitasuna edo handiagoa duten bi kide dituztenentzat (igoera metagarriak).

** Familia-errenta estandarizatuaren kalkulua

# OSASUN-EGOERA OSO LARRIAN DAUDEN SENITARTEKOAK ZAINTZEA

LANALDIA MURRIZTEA (GUTXIENEZ % 33)

- Onuradunak:
  - Besteren konturako langileak.
  - Bazkide kooperatibistak.

- Zaindu beharreko pertsona semea, alaba, ezkontidea edo izatezko bikotea izango da.

- Baldintza da zaindu beharreko pertsonak laguntza behar izatea eguneroko bizitzako oinarrizko ekintzak egiteko, autonomia fisikoa, psikikoa edo intelektuala galdu duelako (txosten medikoa).

- Gutxieneko aldia: 59 egun segidan. Ikus salbuespenak

- Gehieneko aldia: 180 egun eskatzailea emakumea bada eta 360 egun gizona bada.

- Dirulaguntzaren zenbatekoa: hilean 149,5 eta 230 €* bitartean, familia-errenta estandarizatuaren eta murrizketaren ehunekoaren arabera.

  - * % 30 gehiago familia ugarientzat, guraso bakarrekoentzat, edo genero-indarkeriaren biktima den kideren bat, mendekotasun larria edo handia duten bi kide edo % 50eko desgaitasuna edo handiagoa duten bi kide dituztenentzat (igoera metagarriak).



** Familia-errenta estandarizatuaren kalkulua

# SEME-ALABAK ZAINTZEKO **LANGILEAK KONTRATATZEA**



**Semeak edo alabak 14 urte bete aurreko egunera arte**

- **Onuradunak:**
  - **Besteren konturako langileak.**
  - **Norberaren konturako langileak.**
  - **Bazkide kooperatibistak.**
- **Gurasoek lanean egon behar dute, lanaldi osoz. Ikus salbuespenak***
- **Diruz lagundutako epea: 59 egun, segidan izan beharrik gabe.**
- **Dirulaguntzaren zenbatekoa: enplegatzaileak zaintzaileagatik Gizarte Segurantzari ordaintzen dion kotizazio-kuotaren % 100, % 75 edo % 25, familia-errenta estandarizatuaren arabera**.**

*** Familia ugarien kasuan, guraso bakarrekoen kasuan, edo genero-indarkeriaren biktima den kideren bat, mendekotasun larria edo handia duen kideren bat edo % 50eko desgaitasuna edo handiagoa duen kideren bat dutenen kasuan:**

**- Gurasoetako batek % 50eko edo gehiago lan-murrizketa edo kontratazio partziala izan dezake.**

**- Laguntza hauek bateragarriak dira seme-alabak zaintzeko eta mendekotasun-egoeran edo egoera oso larrian dauden senitartekoak zaintzeko eszedentzia edo lanaldi-murrizketa hartzeagatik ematen diren laguntzekin.**

*** * Familia-errenta estandarizatuaren kalkulua**

# URTEBETETIK BEHERAKO SEME-ALABAK ZAINTZEKO LAGUNTZA, JAIOTZAGATIKO PRESTAZIO KONTRIBUTIBOAK **PAREKATZEKO**

## ESZEDENTZIA, urtebetetik beherako seme-alabak zaintzeko



- Onuradunak: guraso bakarreko familiak
  - Besteren konturako langileak, administrazio publikoetako langileak izan ezik.
  - Langile autonomoak.
  - Bazkide kooperatibistak.
- Diruz lagundutako epea:
  - Gehienez 8 aste
- Dirulaguntzaren zenbatekoa: eszedentzia hasi aurreko hilabeteko Gizarte Segurantzako kotizazio-oinarria.

©Marrazkiak: NeuetaNi

# ESTEKA INTERESGARRIAK

Kontziliaziorako laguntzei eta horiek eskatzeko moduari buruzko INFORMAZIO GEHIAGO

164/2019 DEKRETUA, urriaren 22koa, familia eta lana bateragarri egiteko laguntzei buruzkoa.

102/2022 DEKRETUA, irailaren 7koa, 14 urtetik beherako seme-alaba adingabeak zaintzeko langileak kontratatzeko laguntzena.

154/2012 Dekretua, uztailaren 24koa, familia-politiken eremuan familia-errenta estandarizatzeko sistemari buruzkoa.

32/2015 Dekretua, martxoaren 17koa, familia-politiken eremuan familia-errenta estandarizatzeko sistema erregulatzen duen dekretua aldatzekoa.

Familia-errenta estandarizatuaren kalkulua